

**Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala****186. zenbakia****Data 2002-10-02****17119 orria****7 UDAL ADMINISTRAZIOA**

ALBIZTURGO UDALA

**Udal hilerrian zerbitzuak eskeini eta baimenak emateko tasa arautzen duen ordenantza fiskala.***Hileta zerbitzuengatik eta udal hilerrian emakidak ematearen-gatik tasa fiskalen ordenantza arau-tzailea.**1 artikulua. Xedapen orokorrrak.*

Udal honek, hileta zerbitzuengatik eta udal hilerrian emakidak ematearen-gatik tasaren ordenantza fiskal arautzailea ezartzen du, Errejimen lokaleko apirilaren 5eko 7/1985 legearen 106. artikulua emandako ahalmenez baliaturik eta uztailaren 5eko 11/1989 Foru Dekretuaren 20tik 27rarteko artikuluekin bat etorriaz, honako baldintzetan arautuko delarik.

*2 artikulua. Egitate zergagarria.*

Udal hilerriko hurrengo zerbitzuei ezarriko zaie tasa:

—Nitxoen kontzesio eskubideari.

—Lurpeko hilobien kontzesio eskubideari.

—Banan banako hezurtegiei.

—Gorpu eta gorpuzkinen hilobiratze, deshobiratze eta horrelako zerbitzuen erabilerari.

*3 artikulua. Subjektu pasiboak.*

Kontzesio edo zerbitzu eskatzaileak eta emandako baimenaren jabeak dira zergadun moduan subjektu pasiboak.

*4. artikulua. Tributu kuota.*

Zerga ezarpena hurrengo taulaz arautuko da:

a) Emakidak:

—Nitxoen erabilpena, 15 urterako baimen ematea 240,40 €

—Lurpean hilobiratzea, 15 urterako baimen ematea 60,10 €

—Banan banako hezurtokiak, 15 urterako baimen ematea. 90,15 €

b) Hobiratze eta deshobiratze zerbitzuak:

—Nitxoan hilobiratzea 30,05 €

—Lurpean hilobiratzea 90,15 €

*5. artikulua. Zergaren zortzapena.*

Aurreko atalean adierazitako zergen tasak egindako lanagatik edo emandako kontzesio edo baimen bakoitzeko kitatuko dira. Banan banako Hezurtegien kasuan, Hilerriko errejimen eta funtzionamendua arautzen duen erregelamenduko 23. artikuluan xedatutakoa jarraituko da.

*6. artikulua. Aitorpena, kitapena eta sarrera.*

1. Subjeto pasiboek behar duten zerbitzuaren eskaera egingo dute.
2. Zerbitzu bat eskeini edo gauzatu orduko, aurrez jakitera eman eta bere banakako kitapena egingo da. Diru bilketa orokorren araudiak ezartzen duen epean eta moduan, Udal diruzaintzan ordaindu dadin.
3. Hilerrian arduradun den langileak, aurreko artikuluan adierazten denaren ondorioetarako, hilerro, tasa hau ezarri behar zaie zerbitzuen zerrenda eman beharko dio Udal Administrazioari.

*7. artikulua. Arau hauste eta zigorrak.*

Ez ordaintze galerak eta honek sor ditzakeen isunak, Foru Dekretuko Ordainketa Orokorraren 77. artikulua dionaren arabera gauzatuko dira.

Guzti hau, Gipuzkoako Hazienda Lokalak erregulatzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauko 16.4 artikulua agindutakoa betez argitaratzen da, guztion jakinerako eta artikulua horretan aurrikusten diren gainerako ondorioetarako. Foru Arau horren 18.1 artikuluan xedatutakoarekin bat, tasa, kuota, tarifa eta ordenantzetan egindako finkatze eta aldaketak onartzen dituzten erabaki horien kontra, interesatuek tartearri ahal izango dute errekurtsio kontentzioso administratiboa Donostian dagoen Gipuzkoako Administrazioarekiko auzietarako Epaitegian, jakinarazpenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean, egoki deritzozun beste edozein erabiltzeko kalterik gabe.

Horren kalterik gabe eta aipatu artikulua emandako baimenarekin bat, interesatuek jarri ahal izango dute, hala nahi badute eta bide kontentzioso-administratiboa hartu aurretik, Gipuzkoako Auzitegi Ekonomiko administratiboaren aurreko erreklamazioa, horretarako hilebeteko epea dutelarik, argitalpen horiek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunaren biharamunetik hasita».

**Albiztur**, 2002ko irailaren 24a.—Juan Ugartemendia Jauregi, Alkatea.

(138) (10170)